



**AGINDUA, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana.**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan xedatzen du estatu kideen betebeharra dela Europar Batasunaren finantza-interesak babestea, eta neurri egokiak hartzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko.

Bestalde, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duenak, 6. artikuluan eskatzen du iruzurraren aurkako neurrien plan bat idaztea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak kudeatzen dituen erakunde bakoitzarentzat, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzen direla bermatzeko.

Gobernu Kontseiluak, 2022ko martxoaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onesteko erabakia.

Erabaki horren bosgarren apartatuak Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari eskuordetzen dio eskumen hau: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planean egin daitezkeen aldaketak onesteko eskumena».

Plan hori, haren testuak dioenez, «Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatuko zaio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei ere».

Hala ere, EAEko administrazio publiko askok onartuta dituzte iruzurraren aurkako beren neurri-planak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiaren arabera. Hori dela-eta, egokitzen da jo da Gobernu Kontseiluak onartutako planaren idazkera egokitzea, haren aplikazio-eremuari dagokionez. Hartara, ez da nahitaezkoa izango planaren aplikazioa zabaltzea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak Eusko Jaurlaritzaren bidez jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeetara, baldin eta iruzurraren aurkako plan bat badute onartuta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiarekin bat etorriz.

Azaldutakoa dela bide, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Aldatzea 2.2 apartatuaren lehen paragrafoa («Aplikazio-eremua»), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planean, aplikazio-eremuari dagokionez. Honela geratuko da idatzita paragrafo hori:

«Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatuko zaio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei ere, salbu eta iruzurraren aurkako plan bat badute onartuta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiaren arabera. Era berean, plana zuzenean edo egokituta aplikatu ahal izango zaio bere borondatez hala erabakitzen duen edozein erakunde betearazle edo kudeatzailei».

**Bigarrena.-** Agintzea aldaketa hori sar dadila aipatutako planaren dokumentuan, zeina argitaratuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren eta datu-bistaratzeen atarian (<https://www.gardena.euskadi.eus>) eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren web-orrian (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/ogasun-saila/>).

Pedro María Azpiazu Uriarte  
EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUA